

LARRIALDIAK KUDEATZEKO LEGEA

ALDATZEKO LEGE-PROIEKTUA

ZIOEN AZALPENA

Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legea arau aitzindaria izan zen, sistema bakarrean bildu baitzituen edozein ezbehar-motaren ondoriozko ohiko larrialdien ohiko kudeaketa eta hondamendi edo lazeria publikoaren ondoriozko larrialdi kolektiboko egoeretarako erantzuna.

Oinarri bat zuen abiapuntu: ezohikoak ez diren egoeretan larrialdi-zerbitzuen lankidetzeta eta koordinazio operatiboa lagungarria zela ez bakarrik aparteko garrantzi kolektiborik gabeko kasuen aurrean herritarrei arreta eraginkorra emateko, baizik eta gizartea eta erakundeak geldiaraziko lituzkeen hondamendi baterako prestakuntza sustatu ere egiten zuen.

Azken urteotako esperientziak erakusten duenez, asmatu egin dugu eredia aukeratuta; izan ere, etsenplua eta inspirazioa izan da beste toki batzuetan.

Hala ere, denbora joan eta denbora etorri, arauturiko ereduaren zenbait ezaugarri eguneratu beharra dagoela ikusi da. Esate baterako, erakundeen eta zerbitzuen jarduketak bateratzeko eta erlazionatzeko ahaleginak egin behar dira, informatika- eta komunikazio-sistemak eguneratu behar dira, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren zerbitzuetako prestakuntza indartu, jarduteko prozedurak estandarizatu, eta ekimen pribatua eta gizarte-ekimena sektore publikoko jarduerarekin uztartu.

Eguneraketa horretarako, erabaki estrategikoak eta antolamenduari eragiten dioten erabakiak behar dira, eta, erabaki horiek, zenbait kasutan, legezko neurri jakinak onartu beharra eskatzen dute.

Ildo horretan kokatzen da ekainaren 28an onartutako 15/2012 Legea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistema euskal segurtasun-sisteman sartzen du lege horrek, sistema globalago batean, alegia. Lege horretan, besteak beste, EAEko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegia arautzen da, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemako kideen prestakuntza eta gaikuntzarako tresna gisa; baita larrialdietako 1-1-2 telefonoaren zeregina ere.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak, gainera, segurtasun publikoaren sistema osoari aplikatu beharreko printzipio orokorrez gain, larrialdien arloko legedia espezifikoa heldzen dio.

Aurreko diagnostikoak agerian utzi du indarrean dagoen erregulazioak zenbait hutsune dituela, aurreikuspenaren eta alertaren antolamendua, herritarren eskubide eta betebeharrak, norberaren babeseko betebeharrak edo zehapen-araubidea bezalako alderdien inguruan.

Lege honetan proposaturiko aldaketaren xedea Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistema sendotzea da, larrialdietako egiturak eta zerbitzuak eta babes zibila eta herritarrekiko erlazioak indartuz, betiere egun indarrean dagoen sistemaren funtsezko oinarriak aldatu barik.

Horretarako, eduki hauek jorratzen dira:

a) Herritarrek arriskuei eta horien aurka babesteko neurriei buruzko prestakuntzaren eta informazioaren inguruan dituzten eskubide eta betebeharrak arautzen ditu; aldi berean, herritarrek larrialdiei aurre egiteko bitartekoetan inplikatzeko saiatzeko da.

b) Larrialdien aurreko aurreikuspeneko eta prebentzioko bitartekoak indartzen ditu, alerten sarea araututa eta zerbitzu meteorologikoak babes zibilarekin lotuta.

c) Elementu ahulak dituztelako edo arriskutsuak izan daitezkeelako segurtasunerako garrantzitsuak diren erakunde publiko edo pribatu guztiek Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemarekin duten lotura estutzen du.

d) Norberaren babeserako eskubide eta betebeharrak arautzen ditu, bai eta betebehar horiek bete daitezkeen sustatzeko bitartekoak ere.

e) Esku-hartzeko zerbitzuetako langileek larrialdiei aurre egiteko egiten dituzten jarduera aipagarriak eta larrialdi-egoeretan herritarrek zerbitzu horiekin izaten duten inplikazioa eta lankidetzak goraipatzeko sariak sortuko direla jasotzen du.

f) Besteak beste, babes zibileko eta larrialdietako legezko betebeharrak ez betetzeagatik edo larrialdietako deien arreta-zerbitzua eteteagatik arau-haustea eta zehapenak biltzen dituen tipikotasun-printzipioaren arabera zehapen-araubidea arautzen du.

g) Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-planek arriskuen inbentarioa eta mapa kontuan hartzea aurreikusten du eta, horrez gain, arriskuei aurre hartzeko eta gerta litezkeen hondamendien eta zorigaitzen eraginak gutxitzeko neurriak ezartzea.

h) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa arautzen du euskarri teknologiko eta logistikoaren oinarri-plataforma gisa, bai edozein motatako larrialdietan esku hartu behar duten zerbitzuekin komunikatzeko eta bai babes zibileko planek eta aplikatu beharreko taktika operatiboek ezartzen dutena betez zerbitzu horiek errazago koordinatzeko.

i) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa Euskadiko larrialdi- eta segurtasun-zerbitzuetako zentral operatibo guztiekin konektatuta egotea ahalbidetzen duten neurriak hartzea aurreikusten du.

j) Larrialdiko deiak hartzeko zerbitzua egongo dela jasotzen du, eta zerbitzu horrek, 1-1-2 telefono-zenbaki bakarraren bidez, Euskadin edozein herritarrek egindako deiak jasoko dituela, larrialdia edo gertakaria identifikatuko duela, eta deia edo alarma helaraziko diela eskumena duten zerbitzu edo agintaritzei.

k) Larrialdiei erantzuteko zerbitzu eta baliabide interesgarriak dituzten administrazio publikoekin hitzarmenak egitea aurreikusten du, laguntza-eskaera edo larrialdi-deiei azkar, modu integratuan eta eraginkortasunez erantzutea bermatzeko.

l) Hondamendien aurreko Laguntza Unitatearen arauzko eraketa jasotzen du, larrialdi-egoeran dauden pertsonak eta ondasunak babesteko, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean edo lurralde horretatik kanpo, haren laguntza eskatzen denean. Atal hori Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloko eskumena duen sailaren mende egongo da. Unitate horrek nazioarteko lankidetzeta-eginkizunak ere gauzatu ahal izango ditu.

“Artikulu bakarra.- Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen aldaketa”.

BAT.- Legearen 1. artikuluko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“1. Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen jardura antolatzea, pertsonen, ondasunen eta ondare kolektiboari naturak, teknologiak edo gizakiak eragindako kalteak, arriskuak edo mehatxuak saihesteko, gutxitzeko edo zuzentzeko, eraginen edo eragileen handitasunak edo larritasunak ondorio kolektibo larria, hondamendia edo lazeria publikoa dakarrenean; baita horietatik erator daitezkeen urgentziatzeko edo larrialdiko beste kasu batzuetan edota hainbat zerbitzu eta eragileren parte-hartzea eta koordinazioa eskatzen duten kasuetan ere.

Aurrekoen zati dira hondamendia edo lazera publikoa proboka dezaketen meteorologia-fenomenoak, bereziki klima-aldaketaren eraginaren ikuspegitik."

BI.- Kapitulu berri bat eranstean da: I bis kapitulua. Izenburu hau izango du: *"I bis kapitulua.- Eskubideak eta betebeharrak"*.

HIRU.- Artikulu berri bat eranstean zaio I bis kapitulari: 2 bis artikulua. Honela idatzita egongo da:

"2 bis artikulua.-

1. Eragiten dieten arrisku kolektibo larrien, hartu beharreko norberaren babeserako neurrien eta arrisku horiei aurre egiteko aurreikusitako neurri publiko, araudi eta babes zibileko planen berri izateko eskubidea dute herritarrek.

2. Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok du zuzenean eragin diezaiokeen babes zibileko eta larrialdietako araudia eta planak egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea, jendaurreko erakustaldiko eta kontsultako eta herritarren parte-hartzeko izapideen bitartez.

3. Herritarrek agintariengana eta babes zibileko gainerako organo eta zerbitzuengana jo dezakete, kexak, eskaerak eta proposamenak egiteko gai horren ingurukoak eta bere eskumenekoak diren arrisku, aurreikuspen eta bitartekoei buruz.

4.- Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok du babes zibileko zereginetan laguntzeko eskubidea, honako hauen bitartez:

a) Norberaren babeserako plan eta neurriak hartu, mantendu eta aplikatzea.

b) Babes zibileko boluntarioen egitura eta erakundeetan sartzea.

c) Babes zibileko zereginetan parte hartu eta ekarpen puntualak egitea.

Eskubide horretaz baliatu ahal izateko, arauak eta agintarien eta babes zibileko zerbitzuetako arduradunen jarraibide eta oharrak bete beharko dira".

LAU.- Artikulu berri bat eranstean zaio I bis kapitulari: 2 ter artikulua. Honela idatzita egongo da:



"2 ter artikulua. -

Autonomia Erkidegoan bizi den pertsona orok babes zibila kudeatzeko zereginetan laguntzeko betebeharra du, lege honen eta berau garatzeko arauen arabera; eta ildo horretan, betebeharrak hauek ditu:

a) Legez ezarritako norberaren babeserako neurriak hartzea, bai eta, hala badagokio, horiek garatzeko beharrezko bitarteko materialak eta giza bitartekoak mantentzea ere.

b) Eskumena duten agintariei informazioa ematea, kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudian aurreikusitako moduan eta dagokion edukiarekin, eta, oro har, arrisku-egoerak eragin edo larriagotu ditzaketen egoerei buruzko informazioa helaraztea.

c) Beharrezko ikuskaritzak burutzea, indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki. Horretarako, lokaletan edo establezimenduetan sartzen utziko zaio ikuskaritzari.

d) Babes zibileko agintari eskudunei jakinaraztea larrialdi-egoerak sorraraz ditzaketen gorabeherak, edozein izanda ere gorabehera horiek ezagutzeko bitartekoa.

e) Ekintzak eta simulazioak egiten laguntzea, baita larrialdi-egoeretako esku-hartzeetan ere, bidezko arrazoiren batengatik eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera eskatzen zaienean.

f) Babes zibilaren arloko eskumena duten agintariak emandako larrialdiko jarraibide eta neurriak jarraitzea, baita agintari horiek emandako agindu orokor eta bereziak betetzea ere".

BOST.- Artikulu berri bat eransten zaio I bis kapitulari: 2 quater artikulua. Honela idatzita egongo da:

"2 quater artikulua. -

1. Hondamendi, lazzeria publiko edo arrisku kolektibo larriko egoeren aurrean, edozein pertsona egongo da behartuta babes zibilaren arloko eskumena duten agintariak pertsonak, ondasunak eta ingurumena babesteko eskatzen duten laguntza pertsonala ematera, sortutako egoeraren eta pertsona bakoitzak dauzkan aukeren arabera. Zerbitzu horiek ematea nahitaezkoa da eta horregatik ez da inolako kalte-ordainik jasoko.



2. *Larrialdiaren nolakotasunak hala eskatzen duenean, larrialdiari aurre egiteko behar diren ondasunak konfiskatu, hartu edo okupatu ahal izango dituzte babes zibileko agintariek aldi baterako. Jarduera horiengatik kalte-galerak jasaten dituzten pertsonak, entitateek edo enpresek legean ezarritako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dute.*

3. *Babes zibilaren arloko eskumena duten agintariek pertsona, erakunde edo enprekin hitzarmenak sustatuko dituzte, larrialdiren bat gertatuz gero horien bitarteko eta zerbitzuak modu eraginkorrean eskura izan ditzaten.*

4. *Hondamendi, lazeria, hur-hurreko aurri edo muturreko eta berehalako antzeko beste kasu batzuetan, legezkoa izango da etxean sartzea, pertsonen edo gauzei berehalako kalte larriak eragitea saihesteko bada”.*

SEI.- Artikulu berri bat eranstean zaio I bis kapituluari: 2 quinquies artikulua. Honela idatzita egongo da:

“2 quinquies artikulua.-

Babes zibileko agintariek lankidetzan jarduteko betebeharrak berezia dute babes zibilerako garrantzitsuak diren jardueretan aritzen diren pertsonen eta entitateen eta, bereziki, honako hauek:

a) Urrakortasun edo arriskugarritasunagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera norberaren babeserako neurriak hartzerak behartuta dauden jarduerak burutzen dituztenek.

b) Enpresa publiko edo pribatuak arriskuei aurre egiteko dauzkaten zaintza eta babeseko zerbitzuak.

c) Ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrek edo zerbitzu publiko edo interes orokorreko zerbitzuak kudeatzen dituztenek eta, bereziki, osasun-zerbitzuekin lotutako jarduerak edo oinarriko zerbitzu eta hornidurak kudeatzen dituztenek, hala nola ur-, gas- eta elektrizitate-banaketa eta -hornidurako nahiz telefonia eta telekomunikazioetako zerbitzuak ematen dituztenek.

d) Gizarte-hedabideek.”

ZAZPI.- Artikulu berri bat eranstean zaio I bis kapituluari: 2 sexies artikulua. Honela idatzita egongo da:

“2 sexies artikulua.-



1. Aurreko artikuluan aipatutako jarduerak eta zerbitzuak kudeatzen dituzten pertsonak eta entitateak behartuta daude babes zibilaren arloko eskumena duten agintariei informazioa ematera, babes egokia ziurtatzeko egiten dituzten jardueren inguruan. Halaber, behartuta daude babes zibileko arriskuen eta horien bilakaeraren inguruan antzematen duten informazioa ematera ere.

2. Ondorio guztietarako, zaintza eta babeseko zerbitzuak, enpresa publiko edo pribatuen aurrean, babes zibileko laguntzailatzat hartzen dira; horren ondorioz, babes zibileko planetan eginkizunak atxiki dakizkieke eta, hala egokituz gero, babes zibilaren arloko eskumena duten agintariek haien beharra izan dezakete larrialdietan jarduteko.

3. Ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrak edo zerbitzu publikoak edo interes orokorrekoak kudeatzen dituztenak bereziki daude behartuta administrazio eskudunari baliabide materialak eta pertsonalak erabiltzen uztera, larrialdiei aurre egiteko garaian behar bezala jarduteko.

4. Lege honek araututako alertako eta larrialdiko egoeretan, telekomunikazio-sare eta -zerbitzuen titular diren enpresek babes zibileko agintarien eskura jarri beharko dituzte horiek, biztanleriari abisuak edo alertak iragartzeko.

5. Lege honek araututako alertako edo larrialdiko egoeretan, titulartasun publiko edo pribatuko gizarte-hedabideak behartuta daude babes zibileko agintariekin lankidetzan jardutera. Alerta- edo larrialdi-egoerak hala eskatuz gero, hedabide horiek, lehentasun osoz eta berehala, doan iragarri edo argitaratu behar dituzte agintariek helarazitako abisu eta jarraibideak. Kasu guztietan, komunikatua egiten duen babes zibilaren arloko agintaritza eskuduna zein den adierazi behar da".

ZORTZI.- Artikulu berri bat eransten zaio I bis kapitulari: 2 septies artikulua. Honela idatzita egongo da:

"2 septies artikulua.-

1. Herritarren eskubideei eragiten dieten aginduak eta jarraibideak eman ahal izango ditu babes zibilaren arloko eskumena duen agintaritzak, legeetan ezarritako baldintzetan; halaber, hartzaileek derrigor bete beharreko neurriak ere har ditzakete agintaritza horrek, aplikatu beharreko planak ezarritakoaren edo larrialdiko beharrek edo babestu beharreko ondasunek eragindako premiaren arabera.

2. Besteak beste, honako neurri hauek hartu ahal izango ditu:

- a) *Pertsonak beren etxeetan edo leku seguruetan sartuta egonaztea.*
- b) *Pertsonak arrisku-lekuetatik atera edo urruntzea.*
- c) *Arriskuko edo ekintzako eremuetarako sarbidea mugatzea.*
- d) *Zerbitzu publiko eta pribatuen erabilera edo ondasunen kontsumoa mugatu edo baldintzatzea.*
- e) *Leku jakin batzuetan jarduerak mugatu edo debekatzea eta arreta, prebentzio edo jokabide jakin batzuk hartzeko betebeharra ezartzea.*

3. Manu honetan aipatzen diren neurrien indarraldia larrialdiari aurre egiteko beharrezkoa den denborakoa izango da, zehatz-mehatz; halaber, neurriok arriskuaren proportziokoak izango dira, eta ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango.

BEDERATZI.- Atal berri bat eransten zaio II. kapituluari: I bis atala. Izenburu hau izango du: *"I bis atala.- Aurreikuspena"*.

HAMAR.- Artikulu berri bat eransten zaio II. kapituluko I bis atalari: 8 bis artikulua. Honela idatzita egongo da:

"8 bis artikulua.-

- 1. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak egiten eta zaintzen du Euskal Autonomia Erkidegoari eragiten dioten arriskuen inbentarioa eta mapa.*
- 2. Euskadiko arriskuen inbentarioan bilduko dira Euskadiko lurraldean pertsonen, ondasunen, ondare kolektiboari eta ingurumen-ondareari arrisku larriak eragin diezazkieketen egoera edo jarduera natural, antropiko eta teknologiko guztiak. Era berean, erkidegorako interesgarritzat jotzen diren arrisku-egoerak zehaztuko ditu inbentario horrek.*
- 3. Autonomia-erkidegoari eragiten dion arrisku nabari bakoitzaren kokapena erakusten duen kartografia ofizialaren batuketa ideala da Euskadiko arriskuen mapa, eta bertan ezarriko da arrisku bakoitzak lurraldeko zein zonalde hartzen duen.*
- 4. Euskadiko arriskuen inbentarioa eta mapa arriskuen analisi egokien arabera egingo dira, oso kontuan hartuz udalek eta foru-aldundiek egindako babes zibileko planetatik ateratako informazioa eta hainbat administrazio*

publikotako organoek arrisku bakoitzarentzat egindako arrisku-ikerketatik eratorritako datuak. Informazio hori guztia biltzeko, hitzarmenak sinatu ahal izango dira.

Euskadiko arriskuen inbentarioa eta mapa aldiro berrikusten eta eguneratzen dira.

5. Euskal administrazio publiko guztiei emango zaie Euskadiko arriskuen inbentarioaren eta maparen berri".

HAMAIKA.- Artikulu berri bat eranstean zaio II. kapituluko I bis atalari: 8 ter artikulua. Honela idatzita egongo da:

"8 ter artikulua.-

1. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak babes zibileko informazio eta alerten sare bat eratu eta koordinatuko du; batetik, larrialdi-egoerei aurrea hartzeko, egoera horiek antzemateko eta horien jarraipena egiteko, eta, bestetik, pertsonentzat, ondasunentzat eta ondare kolektiboarentzat mehatxu denari buruzko prebentzio-informazioa emateko babes zibileko agintaritzeari, bereziki kalteberak diren zerbitzu publikoei eta herritarrei.

2. Pertsonentzat, ondasunentzat eta ondare kolektiboarentzat arriskutsuak diren fenomenoak antzematen, horien jarraipena egiten eta horiek aurreikusten lagundu dezaketen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko erakunde guztiek eta haren sektore publikoak osatuko dute informazio- eta alerta-sarea.

Halaber, autonomia-erkidegoko lurraldean egon daitezkeen beste kontrol- eta alarma-sistema publiko nahiz pribatu batzuk funtzionalki sare autonomikoan integratzeko ahalegina egingo da.

3. Herritarrei behar bezala eman behar zaie prebentzio-informazioa; hau da, informazio hori eraginkorra izateko, kontuan hartu beharko da informazioa zeini zuzenduta dagoen, batez ere haurren, aitona-amonen, ezinduen edo bereziki kalteberak diren beste kolektiboen kasuan.

4. Alerta edo alarmako instalazioen kokalekua Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak zehaztuko du. Kokalekua erabaki ondoren, hiri-plangintzako hirigintza-tresnek alerta edo alarmako instalazioetarako beharrezko kokaleku-aurreikuspenak bildu beharko dituzte.



Onura publikokotzat jotzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko babes zibileko informazio- eta alarma-instalazioak ezartzeko beharrezko lur-sail eta ondasunak, nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako.

5. Informazio eta alarma automatikoko sarea ezartzeko beharrezko ondasun edo eskubideen nahitaezko desjabetzeak edo zortasunak desjabetzearen arloan indarrean dagoen legeriaren arabera egingo dira”.

HAMABI.- Artikulu berri bat eransten zaio II. kapituluko I bis atalari: 8 quater artikulua. Honela idatzita egongo da:

“8 quater artikulua.-

1. Meteorologiako Euskal Zerbitzuak parte hartzen du aurreko artikuluan aipatutako informazio eta alertako sarean.

2. Meteorologia-fenomeno kaltegarriak iragartzen direnerako jarduera- eta zaintza-programa bat prestatuko da. Programa horrek kaltegarritasun-atalaseak definituko ditu, pertsoneri edo ondasunei, zuzenean edo zeharka, kalteak eragiteko aukeraren arabera, eta, horrez gain, atalase bakoitzean zerbitzu publikoei edo herritarrei jakinarazi beharreko abisu-buletinak prestatuko ditu”.

HAMAHIRU.- Artikulu berri bat eransten zaio II. kapituluko I bis atalari: 8 quinquies artikulua. Honela idatzita egongo da:

“8 quinquies artikulua.-

Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-planek kapitulu honetan araututako arriskuen inbentarioan eta mapan zehaztutakoa hartuko dute kontuan eta, horrez gain, arriskuei aurrea hartzeko eta gerta litezkeen hondamendien eta zorigaitzen eraginak gutxitzeko neurriak ezarriko dituzte. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak administrazio eskudunen eskura jarriko du planifikatu beharreko lurraldean dauden babes zibileko arriskuei buruzko informazioa.

HAMALAU.- Legearen 10. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“10. artikulua.-

1. Urrakortasun edo arriskugarritasunagatik pertsoneri, ondasunei edo ondare kolektiboari arriskuak eragin diezazkieketen pertsona fisiko edo



juridikoek norberaren babeserako honako neurri hauek hartu beharko dituzte, arauz ezartzen diren baldintzetan:

a) Norberaren Babeserako Plana egitea, arauz ezarritako eduki eta prozedurak bilduko dituen, eta plan hori eta hartutako norberaren babeserako gainerako neurriak, bai eta horien aldaketak ere, administrazio eskudunari jakinaraztea.

b) Erregistro-datuak, berariazko araudiaren arabera, Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorreara bidaltzea, eta datu horiek eguneratuta izatea.

c) Norberaren babeserako arduradun bat izendatzea.

d) Babes zibileko agintariei eta zerbitzuei azkar ematea edozein larrialdiren eta beren jardueren ondoriozko arriskua nabarmen handitzea eragin dezakeen edozein gorabeheraren berri.

e) Dagokion norberaren babeserako planean aurreikusten diren edo egoeraren arabera egokienak eta arrazoizkoenak diren neurriak aplikatzea.

f) Herritarrentzako autobabes-neurriei buruzko informazioa zabaltzen eta neurri horiek sustatzen laguntzea agintari publikoei, beren jardueren eragin-eremuan.

g) Babes zibileko agintariei eta horien agenteei jarduerari buruz eskatzen duten informazioa ematea eta, ikuskaritza-zereginetan dihardutenean, informazioa iristen uztea.

h) Arriskuko eta larrialdiko egoerei aurre egiteko beharrezko bitarteko pertsonalak eta materialak mantentzea.

i) Beren jarduera, instalazio, zentro, establezimendu edo bulegoek babes zibilaren arloan eragin ditzaketen kalteak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguru bat edo beste finantza-berme baliokideren bat sinatzea.

2. Arauz katalogatuko dira aurreko paragrafoan aurreikusten diren norberaren babeserako neurriak hartzera behartuta dauden jarduera, instalazio, zentro, establezimendu edo bulegoak”.

HAMABOST.- Legearen 11. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“11. artikulua.-



1. *Jarduera, zentro, establezimendu, espazio, instalazio edo bulegoentzako aurreikusitako esparru organiko edo funtzionala dira norberaren babeserako planak, eta pertsona eta ondasunentzako arriskuak prebenitzea eta kontrolatzea nahiz titularraren erantzukizunpeko eremuan gerta litezkeen larrialdiei erantzun egokia ematea dute helburu, jarduera horiek babes zibileko sistema publikoan sartzea bermatuz. Plan horiek dagokion dokumentuan jaso behar dira.*

2. *Norberaren babeserako planak honako alderdi hauek bilduko ditu gutxienez:*

a) Toki edo establezimenduari eragin diezaioketen arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa.

b) Arriskuak murriztera edo ezabatzerara bideratutako aurreneurrien plana.

c) Larrialdietarako plana, larrialdiko egoeretan garatu beharreko neurriak eta jarduerak biltzen dituena, hala nola alarma, sorospena eta hustuketa; bai eta plan hori babes zibileko planetan sartzea ere.

d) Instalazioetan lan egiten duten pertsonentzako informazio, prestakuntza eta hornikuntza egokia. Araudi bidez hala eskatzen den kasuetarako, sorospena eta laguntza ematen espezializatuta dauden talde profesionalak antolatuko dira, baliabide propioekin.

e) Norberaren babeserako planean dauden neurrien eraginkortasunaz eta babes zibilaren arloko eskumena duten agintariekin eduki beharreko harremanez arduratuko den pertsonaren izendapena.

3. *Norberaren babeserako planen bat izateko betebeharra duten enpresa, erakunde eta zentroek babes zibileko agintaritza eskudunekin lankidetzan jarduteko betebeharra dute, eta beren planari eta sortzen dituzten larrialdiei egoki erantzuteko beharrezko bitarteko tekniko eta materialei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman behar dute, instalazioen kanpoko aldeari eragiten badiote.*

4. *Norberaren babeserako planak teknikari gaituek idatzi behar dituzte, enpresaren edo jardueraren titularraren erantzukizunpean, eta arauz ezarritakoaren arabera egin behar zaie txostena edo homologatu edo onartu egin behar dira, plan bakoitzaren motaren arabera.*

5. *Norberaren babeserako planen arduradunek parte hartu behar dute babes zibileko zerbitzu publikoetako agintari eta arduradunek eskatutako prebentzioko edo jarduneko zeregin guztietan, joan egin behar dute*



bileretarako deia egiten zaienean, agintariei jakinarazi behar diete planak estalitako edozein arrisku-egoerari edo planaren eraginkortasunari eragiten dion edozein gorabehera, eta aktibatu egin behar dute norberaren babeserako plana".

HAMASEI.- Artikulu berri bat eransten da: 11 bis artikulua. Honela idatzita egongo da:

"11 bis artikulua.-

Euskal administrazio publikoek norberaren babesaren kultura sustatuko dute eta, bereziki, arrisku bereziko jardueretan aritzen diren enpresa eta erakundeen artean norberaren babeserako erakundeak eratzea, aholkularitza eta laguntza emanda".

HAMAZAZPI.- Artikulu berri bat eransten da: 11 ter artikulua. Honela idatzita egongo da:

"11 ter artikulua.-

1. Biztanleria arrisku kolektibo larriei, hondamendiei eta lazeriei aurre egiteko prestatzeko beharrezko jarduerak burutu behar dituzte euskal administrazioek, informazioko eta dibulgazioko kanpainen bitartez, bereziki.

2. Norberaren babesaren arloko betebeharrak dituzten jarduerak burutzen dituen erakunde publiko eta pribatu orok herri-administrazioekin lankidetzan jardun behar du biztanleria prestatzeko jardueretan.

3. Babes zibileko agintaritzek ariketak eta simulakroak prestatu eta burutu behar dituzte. Arrisku bereziek eragindako eremu, zentro, establezimendu eta instalazioetan, aldizka ariketak edo simulakroak egin behar dira, egoki diren planen xedapenei jarraiki.

Ariketa, simulakro edo informazio-kanpainen sustatzaileek larrialdietako agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote, aldez aurretik, jarduera horiek burutuko dituztela eta kontrolerako datu jakin batzuk behar dituztela.

HEMEZORTZI.- Artikulu berri bat eransten da: 11 quater artikulua. Honela idatzita egongo da:

"11 quater artikulua.-

Ikastetxeen hezkuntza-zikloetan nahitaezkoa izango da babes zibilaren inguruko informazioko, prebentzioko eta dibulgazioko jarduerak



programatzea, eta aldizka ebakuazioko ariketa edo simulakro bat egin beharko da, egoki den norberaren babeserako planaren aurreikuspenen arabera”.

HEMERETZI.- *Legearen 12. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:*

“12. artikulua.-

1. Norberaren babeserako neurriak bete ezean, babes zibileko agintaritzek exekuzio subsidiariora jo ahal izango dute —egin beharreko errekerimenduak egin ondoren eta subjektu behartuaren kontura—, eta ofizioz hartuko dituzte beharrezkoak diren eta arriskuaren larritasunarekiko proportzionalak diren segurtasun-neurriak.

2. Dolurik, errurik edo dagokion eginbidean hutsegiterik izanez gero edo norberaren babeserako legeak edo araudiak hautsiz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek parte-hartze publikoen gastuak ordaintzea eskatu ahal izango diete erantzuleei, legeria zibilean aurreikusitakoaren arabera”.

HOGEI.- *Artikulu berri bat eransten da: 12. artikulua. Honela idatzita egongo da:*

“12 bis artikulua.-

1. Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko planek eskatu ahalko dute, komunitaterako, horren egonkortasun ekonomiko eta sozialerako eta arrisku larri-, hondamendi- edo lazeria-kasuetan azkar lehengoratzeko ezinbestekoak diren azpiegitura kritiko eta baliabide gako zehatzetan jardueraren jarraipen-planak prestatzea eta ezartzea.

2. Ezinbesteko zerbitzuen jarraipen-planen helburua da arrisku larri, hondamendi edo lazeria-kasuetan komunitaterako funtsezko zerbitzuak berehala berreskuratu, lehengoratu edo/eta jarraitzea ahalbidetzen duten neurri eta prozedurak aurreikustea, larrialdian zehar eta amaitu ondoren ezinbesteko funtzioek iraungo dutela ziurtatuz.

3. Jarraipen-planek honako hauen analisisia eta ebaluazioa eduki behar dute: arrisku eta elementu ahulena, zerbitzuaren jarraipena oztopatzen duten inpaktu eta arlo kritikoena, prozesu kritikoetatik errekuperatzeko neurriena eta horretara bideratutako baliabideena. Horiez gain, plana ezartzeko, planarekin jarraitzeko eta plana eguneratzeko erabiliko diren neurri zehatzak ere bildu beharko dituzte planek.

4. Jarraipen-planetan aurreikusitako neurriak norberaren babeserako planetan eta azpiegitura kritikoak babesteko planetan aurreikusitako neurriekin koordinatu eta osatu beharko dira. Behar izanez gero, gainera, neurri horiek guztiak dokumentu bakarrean fusionatu ahal izango dira”.

HOGEITA BAT.- III. kapituluko 23. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“2. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailari dagokio kapitulu honetan aurreikusitako larrialdietako esku-hartzeetan parte hartzen duten zerbitzuen arteko lankidetzak eta koordinazioa erraztea. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak egindako lanaren bitartez egituratuko dira, batez ere, lankidetzak eta koordinazio horiek, eta eragiteko taktikak izango dira horretarako oinarritzko tresna, betiere alde batera utzi gabe administrazio bakoitzak bere zerbitzu propioen barne-koordinaziorako izan ditzakeen zentroak”.

HOGEITA BI.- III. kapituluko 24. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

“24. artikulua.-

1. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa da euskarri teknologiko eta logistikoaren oinarri-plataforma, edonolako larrialdietan esku hartu behar duten zerbitzuen jarduna jakinarazteko eta haien arteko koordinazioa errazteko, babes zibileko planek xedatutakoaren eta egoki diren taktika operatiboaren arabera.

2. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari dagokio:

a) 1-1-2 telefono-zenbaki bakarren bidez egiten diren larrialdi-deiei erantzuteko zerbitzua ematea.

b) Beharrezko zerbitzuak koordinatzeko eta bateragarri egiteko laguntza teknikoa ematea.

c) Larrialdiaren garapenari jarraipena egitea (horretarako, parte hartzen duten bitarteko eta baliabideei buruzko informazioa jasoko dute), eta bitarteko eta baliabide horien koordinazioan laguntzea.

d) Babes zibileko informazio- eta alerta-sareko transmisioak jakinarazi, kontrolatu eta koordinatzeko sisteman parte hartzea.



e) Ekintzak Koordinatzeko Zentro eta Ekintza Integratuak Koordinatzeko Zentro gisa jardutea larrialdi aitortuko egoeretan, Autonomia Erkidegoaren Babes Zibileko plana aktibatu eta gero, eta aktibatzea formalki erabaki duen babes zibileko agintaritza eskudunaren zuzendaritzapean.

f) Antolamendu juridikoak emandako bestelako zereginak.

3. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailaren barruan larrialdiei aurre egiteko eta babes zibileko eskumena duen zuzendaritzari dago atxikita Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa, eta sail horrek zehazten dituen lurralde-kokapenak izango ditu.

4. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak ezarriko ditu Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroa Euskadiko larrialdi- eta segurtasun-zerbitzu guztietako zentral operatiboekin konektatu eta koordinatu ahal izateko behar diren neurriak, inplikaturik dauden gainontzeko erakundeekin lankidetzan" .

HOGETA HIRU.- Artikulu berri bat eransten zaio III. kapituluari: 24 bis artikulua. Honela idatzita egongo da:

"24 bis artikulua.

1. Larrialdiko deiei erantzuteko zerbitzuaren zeregina da 1-1-2 telefono-zenbaki bakarraren bidez Euskadin edozein herritarrek egindako deiak jasotzea, larrialdia edo gertakaria identifikatzea eta dagokien zerbitzu edo agintaritzei helaraztea deia edo alarma, administrazio bakoitzaren barne-antolamenduaren arabera.

2. Deiei erantzuteko zerbitzuaren zereginen artean ez da sartzen herritarrek eskatzen duten laguntza materiala ematea. Hori administrazio eta erakunde eskudunek egin behar dute, eskumenak esleitzeko, antolatzeke eta funtzionatzeko dauzkaten arauekin bat etorritik.

3. Larrialdiko deiei erantzuteko zerbitzurako sarbidea unibertsala, doakoa eta iraunkorra izango da Euskadin dagoen ororentzat.

Zerbitzua euskaraz nahiz gaztelaniaz ematen da. Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak beharrezko bitartekoak jarri beharko ditu zerbitzua Europar Batasuneko estatuetako hizkuntza ofizialetan emateko, bai eta desgaituek zerbitzua eskuratu ahal izango dutela ziurtatzeko bitartekoak ere".

HOGETA LAU.- Artikulu berri bat eransten zaio III. kapituluari: 24 ter artikulua. Honela idatzita egongo da:

"24 ter artikulua. -

1. Herritarrek edo erakundeek Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin izaten dituzten elkarrizketak, bai telefonozkoak eta bai irratizkoak, grabatu egingo dira.

2. Larrialdien kudeaketa-prozesuarekin zerikusia duten jarduera eta komunikazioak —telematikoak, telefonozkoak nahiz irratizkoak— Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren kudeaketa-sisteman erregistratuta geratuko dira, eta larrialdi-gertakarien kudeaketari buruzko datuen informazio ofizialaren elementu bilaka daitezke.

3. Larrialdi-gertakariei erantzuteko zerbitzua emateko, gertakari horiek kudeatzeko eta laguntza-jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak eta informazioa indarrean dagoen datu pertsonalak babesteko legeriaren arabera bildu eta tratatuko dira.

Datu pertsonalak bildu ahal izango dira, datu horiek borondatez ematen direnean edo beharrezkoak direnean pertsonen osotasuna edo ukitutakoaren edo hirugarrenen ondasunen osotasuna zaintzeko edo ukitutakoaren edo hirugarrenen ezinbesteko beharrezkoak diren erantzuteko.

Era berean, indarrean dauden legeen arabera isilpekoak diren beste informazio batzuk ere bildu ahal izango dira, larrialdiari aurre egiteko edo beharrezko laguntza materiala emateko erabakigarriak direnean.

4. Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak tarteko diren oinarrizko zerbitzu guztien eskura jarriko du larrialdi-gertaeren kudeaketari buruzko informazioa, kudeaketa gauzatzeko helburu bakarrarekin. Pertsonen osotasuna edo ukitutakoaren edo hirugarrenen ondasunak zaintzeko edo pertsonen ezinbesteko beharrezkoak diren erantzuteko nahitaezkoak direnean bakarrik jarriko dira datu pertsonalak zerbitzu horien eskura.

5. Indarrean dagoen legeriak eta lege honek berariaz ezarritako kasuetan soilik laga ahal izango dira deiak hartu eta kudeatzen eta gertakariak eta laguntzak burutzen lortutako datu pertsonalak.

6. Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroak kudeatutako gertaeren grabazio eta erregistroak gehienez bi urtez gordeko dira, agintaritzak judizialak besterik agintzen ez badu.



7. Euskadiko Larrialdiak Kudeatzeko Zentroaren organo arduraduna izango da fitxategien erantzulea, eta datuen konfidentzialtasuna, segurtasuna eta zuzentasuna bermatzeko eta indarrean dagoen legeriak ukituei aitortzen dizkien eskubideak gauzatzeko beharrezkoak diren neurri teknikoak, kudeaketakoak eta antolamendukoak hartu beharko ditu".

HOGEITA BOST.- Paragrafo berri bat eransten zaio III. kapituluko 25. artikuluari: bigarren paragrafoa. Honela egongo da idatzita:

"25. artikulua.-

2. Zehazki, hau dena egingo dute Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legearen arabera larrialdiak kudeatzeko eta babes zibileko sisteman ezinbestekoak edo oinarrizkoak diren zerbitzuek:

a) Azkar, eraginkortasunez eta efizientziaz erantzungo diete larrialdiko egoerak konpontzeko aktibazio-eskaerei, eta beraiei dagokie gertakari bakoitzeko esku-hartzeari esleitu beharreko baliabide-mota eta -kopurua zehaztea.

b) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari jakinaraziko diote larrialdiari aurre egiteko zein baliabide erabili duten eta zeintzuk izan diren larrialdia aktibatuzko, lekura iristeko eta bukatuzko denborak.

c) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari jakinaraziko dizkiote ezagutzen dituzten eta, hainbat diziplina hartzen dituztenez, administrazio bateko baino gehiagoko zerbitzuen esku-hartzea behar duten gertakariak.

d) Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak aktibatutako larrialdigertakarien itzulera-informazioa emango dute, eta larrialdiaren bilakaeraren datu garrantzitsuak helaraziko dituzte, gertakariak berriz tipifikatu ahal izateko eta beste oinarrizko zerbitzu batzuek esku hartu ahal izateko".

HOGEITA SEI.- III. kapituluko 27. artikulua aldatzen da, eta honela egongo da idatzita aurrerantzean:

"27. artikulua.-

"1. Eusko Jaurlaritzak arauz ezarriko du kapitulu honetan adierazitako larrialdiei erantzuteko interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuak eta baliabideak dituzten administrazio eta erakundeek nola parte hartu behar duten eta nola aritu behar duten lankidetzan Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan.



2. *Laguntza-eskaera edo larrialdi-dei baten aurrean azkar, modu integratuan eta eraginkortasunez erantzungo dela bermatzeko, larrialdiei erantzuteko zerbitzu eta baliabide interesgarriak dituzten administrazio publikoekin hitzarmenak egitea aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak. Hitzarmen horietan honako hauek zehaztuko dira gutxienez:*

a) *Deia inplikaturako zerbitzura deribatzea edo zerbitzuaren bitarteko eta baliabideek esku hartzea eragin dezaketen larrialdi-egoeren definizioa.*

b) *Laguntza-eskaerak jakinarazteko protokolo edo prozedurak, eta gertakari edo larrialdian parte hartzen ari diren zerbitzuei itzulerako informazioa emateko mekanismoak.*

d) *Hala badagokio, Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan aurrez aurre edo telematikoki parte hartzeko moduak.*

e) *Asistentzia edo gertakari bakoitzari segimendua egiteko eta bukaera emateko modua.*

f) *Asistentzia jakin bat egoki koordinatzen eta modu onenean ematen lagundu dezakeen beste edozein alderdi”.*

HOGETA ZAZPI.- Artikulu berri bat eransten zaio V. kapitulari: 49. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“49. artikulua.-

Larrialdi-egoeran dauden pertsonen eta ondasunen laguntzea helburuetan sartuta duten eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzat hitzarmen bat sinatuta duten irabazi-asmorik gabeko erakunde altruistak babes zibilaren lankidetzat hartu ahal izango dira. Arauz zehaztuko da hitzarmen horien edukia, eta hau egongo da, gutxienez, eduki horren barruan: erakundeek eskueran jartzen dituztela beren bitarteko eta baliabideak, nola lagundu eta parte hartuko duten eta zein konpentsazio dagokien kasu horietan.

HOGETA ZORTZI.- Kapitulu berri bat eransten da: VI. kapitulua. Izenburu hau izango du: *“VI. kapitulua.- Sariak eta aintzatespenak”.*

HOGETA BEDERATZI.- Artikulu berri bat eransten zaio VI. kapitulari: 50. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“50. artikulua.-

1. Larrialdietan esku hartzeko zerbitzuetako langileen jardun aipagarriak jendaurrean aintzat hartzeko sariak sortuko ditu Eusko Jaurlaritzak, bai eta arrisku kolektibo larriko, hondamendiko edo lazeria publikoko egoeretan



pertsonak, haien ondasunak eta ondare kolektiboa babesteko funtsezko lanean herritarrek izaten duten inplikazioa eta aipatutako zerbitzuei ematen dieten laguntza aintzatesteko sariak ere.

2. Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemako zerbitzuek, zerbitzu horietako langileek eta larrialdi-egoeren ondorioak gutxiagotzen eta arintzen laguntzen duten prebentzio-lanengatik nabarmentzen diren pertsona eta erakundeek jaso ahal izango dituzte sari horiek.

3. Sariak banakoei eta taldeei eman ahal izango zaizkie”.

HOGEITA HAMAR.- Kapitulu berri bat eransten da: VII. kapitulua. Izenburu hau izango du: “*VII. kapitulua.- Zehapen-araubidea*”.

HOGEITA HAMAIIKA.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 51. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“51. artikulua.-

1. Lege honetan tipifikatutako egintzak eta ez-egiteak larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste administratiboak dira eta, hortaz, dagozkion erantzukizun zibil eta penalak ezarri ahal izango dira.

2. Arau-hauste horiek honela sailkatzen dira: oso larriak, larriak eta arinak.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalaren inguruan indarrean dagoen arautegiak edo hori ordeztzen duen arauak ezarritakoak eta lege honetan eta berau garatzeko arautegian xedatutakoak arautuko dute administrazio publikoek lege honen eremuan daukaten zehatzeko ahala.

4. Enplegatu publikoei haien zereginetan eskatzen zaien erantzukizunak bat etorri beharko du aplikagarri zaien funtzio publikoko arautegiak ezartzen duenarekin”.

HOGEITA HAMABI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 52. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“52. artikulua.-

1. Jokabide hauek dira larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste oso larriak:



- a) *Norberaren babeserako nahitaezko planak ez prestatzea edo ez ezartzea, edo haietan aurreikusitako neurriak aplikatzea beharrezkoa denean ez aplikatzea.*
- b) *Arautegi espezifikoaren arabera erregistragarriak diren datuak ez bidaltzea Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean, edo, datuak homologatu beharreko kasuetan ez homologatzea.*
- c) *Norberaren babeserako nahitaezko planak ez aldatzea, eguneratzea edo berrikustea hala egin beharreko kasuetan.*
- d) *Establezimendu, zentro edo jarduerak babes zibilaren eremuan eragin ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko asegururik edo bestelako finantza-berme baliokiderik ez edukitzea.*
- e) *Babes zibileko planei atxikitako baliabide eta zerbitzuen ikuskapena egitea eragozteko babes zibileko agintaritzaren eskudunei, bai eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako norberaren babeserako eskakizunak betetzen direla ikuskatzea eragozteko ere.*
- f) *Katalogatutako jardura arriskutsuak kudeatzen dituzten erakundeek haien betebeharra ez betetzea. Alegia, babes zibileko plan bat aktibatzea eskatzen duen larrialdia eragin dezakeen edozein egoera ezagutzen dutenean berehala horren berri ez ematea, eta autobabeserako planak aktibatzen dituztenean ez jakinaraztea.*
- g) *Administrazioek dauzkaten babes zibileko baliabideen esku-hartzea eragiten duten larrialdi-abisu faltsuak bidaltzea edo bidalaraztea, larrialdi-abisuetarako telefonora deituz edo larrialdietarako bestelako bitartekoen bidez.*
- h) *Arrisku larri, hondamendi edo lazeria publikoko egoeretan babes zibilaren arloko agintari eskudunek eta haien agenteek ematen dituzten aginduak edo jarraibideak ez betetzea.*
- i) *Babes zibilaren arloko agintari eskudunek edo haien agenteek plan baten aktibazioa edo larrialdi aitortuko egoeretan lege honekin bat etorritik agintzen dituzten prestazio pertsonalak egiteari uko egitea arrazoi justifikaturik gabe.*
- j) *Oztopoak jartzea babes zibilaren arloko agintari eskudunek ezarritako larrialdiari aurre egiteko behar diren ondasunak aldi baterako konfiskatzeko, hartzeko edo okupatzeko.*



k) Behin eta berriz uko egitea ondasun publikoen gaineko eskubideen titularrei edo zerbitzu publiko edo interes orokorreko zerbitzuak, osasun-zerbitzuekin lotutako jarduerak edo oinarrizko zerbitzu eta hornidurak kudeatzen dituztenei ezartzen zaizkien lankidetzeta-betebehar bereziak betetzeari.

l) Gizarte-hedabideek ez obeditzea babes zibilaren arloko agintari eskudunek alerta edo larrialdiko egoeretan helarazten dizkieten abisu eta jarraibideak lehentasunez, berehala eta doan emateko edo argitaratzeko aginduak.

m) Telekomunikazio-sare eta -zerbitzuen titular diren enpresek uko egitea sare eta zerbitzu horiek babes zibileko agintaritzen eskura jartzeari, agintaritze horiek hala eskatzen dietenean biztanleriari abisuak edo alertak iragartzeko.

2. Era berean, oso larritzat kalifikatuko dira larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste larri batengatik edo gehiagorengatik aurreko bi urteetan ebazpen irmo baten bidez zigortua izan den pertsona edo erakunde batek egindako arau-hauste larriak".

HOGETA HAMAHIRU.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 53 artikulua. Honela idatzita egongo da:

"53. artikulua.-

1. Jokabide hauek dira larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste larriak:

a) Larrialdietarako telefonoetara edo beste baliabideetara dei gehiegizkoak, iraingarriak, mehatxuzkoak edo txantxetakoak eginez lineak okupatu eta zerbitzuaren eraginkortasuna kaltetzea, edo behin eta berriz dei hutsalak egitea.

b) Linearen edo telefono mugikorraren titularrak ez benetan identifikatzea 52.1 g), 53.1 a) eta 54 a) artikuluetan aipatzen diren deiak egiten dituen pertsona, hala egin dezala eskatzen zaionean.

c) Babes zibileko planei atxikitako baliabide eta zerbitzuen ikuskapena egiteko oztopoak jartzea (erabat eragotzi gabe) babes zibilaren arloko estatuko agintaritzea eskudunei, bai eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako norberaren babeserako eskakizunak betetzen direla ikuskatzeko oztopoak jartzea ere.



d) Babes zibileko planei atxikitako bitarteko eta zerbitzuen egoera ikuskatzeko oztopoak jartzea (erabat eragotzi gabe), bai eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako norberaren babeseko eskakizunak betetzen ari direla ikuskatzeko oztopoak jartzea ere.

e) Larrialdi-egoerak eragin ditzaketen gorabehera edo gertaerak babes zibileko agintaritza eskudunei ez jakinaraztea, eta hori arau-hauste oso larria ez izatea.

f) Boluntarioak mobilizazio-agindura ez joatea agintaritza eskudunak ezarritako plan edo larrialdi bat aktibatzen denean, arrazoi justifikaturen bat izan ezean.

g) Larrialdi bati aurre egiteko beharrezkoak diren ondasunak eta bitartekoak aldi baterako eta iragankortasunez konfiskatu, hartu edo okupatzeko oztopoak jartzea (erabat eragotzi gabe), neurri horiek babes zibileko agintaritza eskudunak agindu dituenen.

h) Babes zibileko agintaritza eskudunek edo haien agenteek alerta- edo larrialdi-egoeretan ematen dituzten aginduak eta jarraibideak ez betetzea, hori arau-hauste oso larria ez denean.

i) Norberaren babeserako planen arduradunek ez jakinaraztea planak estalitako arrisku-egoerei eragiten dien edozein gorabehera edo gertaera, bai eta arrisku-egoera horri aurre egiteko ezarritako baliabide eta zerbitzuen eraginkortasuna ez jakinaraztea ere.

j) Babes zibileko plan baten aktibazio-egoeran izaten diren 54. artikuluko jokabideak, pertsonen bizia edo osotasun fisikoa arriskuan jarri badute edo hondamendiaren edo lazeria publikoaren arrisku-egoera edo ondorioak areagotu badituzte.

k) Babes zibileko planen zerbitzura jarritako ekipamendu edo instalazioen funtzionamendu egokia larriki kaltetzea edo aldaraztea.

2. Era berean, larritzat kalifikatuko dira larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste arin batengatik edo gehiagorengatik aurreko bi urteetan ebazpen irmo baten bidez zigortua izan den pertsona edo erakunde batek egindako arau-hauste arinak”.

HOGETA HAMALAU.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 54. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“54. artikulua.-



Jokabide hauek dira larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko arau-hauste arinak:

a) Larrialdietarako telefonoetara edo beste baliabideetara dei gehiegizkoak, iraingarriak, mehatxuzkoak, maltzurak edo txantxetakoak egitea.

b) Babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloko agintaritzak edo haren agenteek ezartzen dituzten neurriak edo jarraibideak ez betetzea edo ez errespetatzea ariketak edo simulazioak egiten direnean.

c) Babes zibileko boluntarioek boluntario-izaera erakusten duten intsignia eta bereizgarriak eramatea edo erakustea, beren eginkizunak betetzen ari ez direnean.

d) Babes zibileko planen zerbitzura jarritako ekipamendu edo instalazioen funtzionamendu egokia kaltetzea edo asaldatzea, hori arau-hauste larria ez denean”.

HOGEITA HAMABOST.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 55. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“55. artikulua.-

1. Arau-hauste oso larriak 30.001 eurotik 600.000 euro arteko isunarekin zigortzen dira. Horrez gain, lokala, zentroa edo instalazioa aldi baterako ixteko edo jarduera arriskutsuak aldi baterako eteteko agindua eman ahal izango da (gehienez urtebeterako), betiere zehapena eragin zuen kausa ebatzi bada.

2. Arau-hauste larriak 1.501 eurotik 30.000 euro arteko isunarekin zigortzen dira.

3. Arau-hauste arinak 150 eurotik 1.500 euro arteko isunarekin zigortzen dira.

4. Babes zibileko boluntarioen erakunde, talde edo elkarteetako kideek egiten dituzten arau-hauste larriek eta oso larriek berekin dakarte Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemari boluntario gisa parte hartzeko desgaituta geratzea. Arau-haustea oso larria izanez gero, bost urtekoa izango da desgaituntza, eta arau-haustea larria izan bada, hiru urtekoa. Gainera, arau-hausteari baja emango zaio babes zibileko laguntzaileak diren boluntario-elkarteen erregistroan, eta kendu egingo zaio babes zibileko boluntario izatearen egiaztagiria.



5. Zehapenak arau-hausteari dagokion egitatearen larritasunaren arabera graduatu behar dira, honako hauek kontuan izanda: segurtasunean izan duen eragina, eragindako kalte-galerak, ondasun eta pertsonen eragindako arrisku objektiboa, jokabide arau-hausteari kanpoko garrantzia, kalte egiteko asmorik izan den eta arau-haustea berriro egin den, bai eta erantzuleak kaltea konpontzeko izan duen jarrera ere, galera handiagoa izan ez dadin".

HOGEITA HAMASEI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapituluari: 56. artikulua. Honela idatzita egongo da:

56. artikulua.-

1. Lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzule izango dira lege honetan tipifikatutako egintzak egiten parte hartu duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak. Erantzule izango dira, beraz, egitate arau-haustea zuzenean edo zeharka egiten duten guztiak, bai eta jarraibide edo aginduak ematen dituztenak edo arau-hauste hori egiteko beharrezko diren bitartekoak jarri dituztenak ere.

2. Establezimendu eta industrien titularrak eta jardueren sustatzaile eta antolatzaileak izango dira lege honetan arautzen diren arau-hauste administratiboen erantzuleak, jarduera horietan parte hartzen duten pertsonen leku horietan arau-hausteak egiten dituztenean; betiere arau-hausteari aurrea hartzeko obligazioa betetzen ez badute eta arauzko edo legezko arautegia urratzen badute.

3. Aipatutako titular eta antolatzaile edo sustatzaile horiek, era berean, erantzule izango dira, egintzaz edo ez-egitez, ikusle edo erabiltzaileen aldetik arau-hauste horiek egitea onartzen edo toleratzen dutenean. Onarpena edo tolerantzia izan dela joko da kasu honetan: norberaren edo besteen arriskurik gabe eta egoeraren beharretara egokitutako bitartekoekin, erantzuleak arau-haustea ekidin ahal izan duenean.

4. 52.1.g), 53.1.a) eta 54.a) artikuluetan aurreikusitako arau-hausteengatik erantzukizuna deiaren egilearengan eroriko da zuzenean.

Deiaren egilea edo eragilea adingabekoa edo ezgaia denean, gurasoak, tutoreak edo egitatezko edo zuzenbidezko zaintza dutenak izango dira eragindako kalte-galeren eta, ala dagokionean, hondatutako egoera bere onera ekartzearen erantzule solidarioak, adingabeek edo ezgaiek arau-hauste administratiboak egitea saihesteko dagokien betebeharra ez betetzeagatik.



Deiaren egilea hirugarren bat den kasuetan, hau da, linearen edo terminal mugikorraren titularra ez den beste batek egiten duenean deia, titularrak egiazki identifikatu beharko du hirugarren hori, horretarako errekerimendua egiten diotenean, salbu eta deia egindako eguna baino lehen telefona lapurtu badiote. Prozedura-izapide egokian eginbehar hori betetzen ez badu, 53.1.b) artikuluan aurreikusitako hutsegite larriaren egile moduan zigortua izango da.

Modu berean erantzungo du linearen edo terminal mugikorraren titularrak honako kasu honetan: hark identifikatzen duen arau-hausleari salaketa jakinaraztea ezinezko gertatzen denean, titular horri egotz dakioken arrazoiren bat dela-eta”.

HOGETA HAMAZAZPI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 57. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“57. artikulua.-

1. Zehatzeko ahala autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrari, udalerriei eta Foru Administrazioari dagokie, artikulua honetan ezarritakoa betez, dagozkien eskumenen arabera eta arau-haustea eragin duen jokabideak kaltetutako planaren eremuarekin bat etorriz.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zehatzeko ahala Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailak baliatuko du, honako eskuduntza hauekin bat etorrira:

a) Larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko zuzendaritza eskuduneko titularrari egokituko zaio arau-hauste arinengatiko zehapenak ezartzea.

b) Larrialdiei aurre egitearen eta babes zibilaren arloko zuzendaritza eskuduna menpeko den sailburuordetzako titularrari egokituko zaio arau-hauste larriengatiko zehapenak ezartzea.

c) Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen saileko titularrari dagokio arau-hauste oso larriengatiko zehapenak jartzea.

3. Zehapen-espeditente bat izapidetzen ari den bitartean espeditentea izapidetu eta ebazteko eskumena beste administrazio batena izatea gertatzen bada, espeditenteari hasiera eman zion organoak artxibatu egingo du espeditente hori, eta egindako jarduketak administrazio eskudunari



bidaliko dizkio, hark, beharrezkoa izanez gero, zehapen-prozedura hastea erabaki dezan.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta toki- eta foru-administrazioetako organo eskudunek izapidetzen ari diren espedienteen berri emango diote elkarri, espedienteari hasiera ematea erabaki eta ondorengo hamar eguneko epean".

HOGEITA HEMEZORTZI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 58. artikulua. Honela idatzita egongo da:

58. artikulua.-

1. Arau-hauste oso larriek hiru urtera preskribatzen dute; arau-hauste larriek, bi urtera, eta arau-hauste arinek, urte batera.

2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urtera preskribatzen dute; arau-hauste larriengatik ezarritakoek bi urtera, eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek, urte batera.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehatzeko ahalaren inguruan indarrean dagoen arautegiak xedatutakoaren arabera balioetsiko da arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

HOGEITA HEMERETZI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapitulari: 59. artikulua. Honela idatzita egongo da:

59. artikulua.-

1. Pertsona edo ondasunen segurtasunari eragiten dion gorabehera larriren bat gertatzen denean, establezimendua berehala ixtea, instalazioak prezintatzea edo jarduerak etetea erabaki ahal izango da kautelaz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehatzeko ahalaren inguruan indarrean dagoen arautegiak ezarritakoaren arabera.

2. Salbuespen gisa, pertsona edo ondasunentzako arrisku larria edo arrisku hur-hurrekoa dagoen kasuetan, neurri horiek babes zibileko agintariek edo haien agenteek hartu ahal izango dituzte, prozedurari hasiera eman aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zehatzeko ahalaren inguruan indarrean dagoen arautegian aurreikusitakoaren arabera.

BERROGEI.- Artikulu berri bat eransten zaio VII. kapituluari: 60. artikulua. Honela idatzita egongo da:

“60. artikulua.-

1. Lege honetan tipifikatzen diren arau-hausteei dagozkien zehapenak, betiere, pertsona, ondasun eta instalazioei eragindako kalte-galeren ordaina emateko betebeharra alde batera utzita ezarri behar dira.

2. Era berean, zehapen-prozeduraren ondorio den erantzukizun administratiboa bateragarria izango da aldarazitako egoera jatorrizko egoerara lehengoratzeko eskakizunarekin; hori erantzuleei eskatuko zaie, betiere posible denean.

3. Lehengoratzea posible izango ez balitz, kalte-ordainak egoera konpondu gabearen balioa izango du, gehi eragindako kalte-galeren balioa.

4. Arau-hausleak lehengoratzeko edo zaharberritzeko eginbeharra betetzen ez duenean, administrazioak betearazte subsidiarioa egin ahal izango du, haren kontura.

5. Doluzko portaera edo portaera larriki arduragabearekin larrialdi-egoera bat eraginez edo larriagotuz lege honetan aurreikusitako arau-hausteetakoren bat egiten duenak ordaindu egin beharko dizkio Ogasun Publikoari egoera hori konpontzeko hark egiten dituen gastuak. Kalte-ordainezko ondorioen zehaztapena zehatzeko ebazpenean egingo da”.

52.1.g) artikuluan adierazitako kasuan, bereziki, eta kasu bakoitzean bidezko diren zehapenak alde batera utzita, baliabideen mobilizazioak eragiten dituen kalte-galerak ordaindu beharko dituzte arau-hausleek”.

BERROGEITA BAT.- Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Aurrerantzean, honela idatzita egongo da:

“Bigarren xedapen gehigarria.-

Euskal Autonomia Erkidegoari babes zibilaren eta itsas salbamenduaren arloan dagozkion eskuduntzak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organo eskudunei dagokie giza bizitzen sorospeneko eta salbamenduko zerbitzuen koordinazioa eta lurralde-itsasoan bilaketako, erreskateko eta salbamenduko zerbitzuak eskaintzea, autonomia-erkidegoz gaindiko interesa dagoen kasuetan estatuari dagozkion eskumenak kaltetu gabe.



Xede horretarako, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko itsas salbamenduko plana onartuko du. Plan horren edukiak autonomia-erkidegoz gaindiko planetan integratzea ahalbidetuko du, eta oinarritzko helburutzat izango ditu:

a) Bilaketako, giza bizitzen salbamenduko eta itsas kutsaduraren aurkako eragiketak egiteko gai diren euskal herri-administrazioetako eta gainerako erakunde publiko eta pribatuetako bitarteko guztien jarduera koordinatzea.

b) Dagoeneko badiren salbamenduko eta itsas kutsaduraren aurkako bitartekoak sustatzea eta pertsona gaituak prestatzea”.

BERROGEITA BI.- Xedapen gehigarri bat eransten da: bosgarren xedapen gehigarria. Honela idatzita egongo da:

“Bosgarren xedapen gehigarria.-

Arauz ezarriko dira Eusko Jaurlaritzako larrialdi-gaietako sail eskudunari atxikita dauden zerbitzuek izan beharreko antolamendua eta espezifikotasunak, haien agintariei larrialdi-egoeretako plangintza, eskuhartze eta koordinazioan lagundu diezaieten, dagokien eskumen-esparruan.

Arautze horretan, kontuan hartuko dira behar diren ezagutza-espezializazioak, lanak gauzatzeko behar diren baldintzak eta zerbitzuak etengabe funtzionatzeko bermeak. Zerbitzu horiei atxikitako langileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira, beren zereginak betetzen ari diren bitartean.

BERROGEITA HIRU.- Xedapen gehigarri bat eransten da: seigarren xedapen gehigarria. Honela idatzita egongo da:

“Seigarren xedapen gehigarria.-

1. Arauz eratuko da Hondamendien aurreko Laguntza Unitatea, Eusko Jaurlaritzan segurtasunaren arloko eskumena duen sailaren mende egongo dena, larrialdi-egoeran dauden pertsonak eta ondasunak babesteko, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean edo lurralde horretatik kanpo, haren laguntza eskatzen denean. Era berean, nazioarteko lankidetzako misioak ere egin ahal izango ditu.

2. Hondamendien aurreko Laguntza Unitatean parte hartu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako enplegatu publikoek gain, beste herri-administrazio batzuen edo erakunde pribatuen zerbitzuko



langileek ere, bidezko hitzarmenaren bitartez, bai eta babes zibileko boluntarioek ere.

3. Hondamendien aurreko Laguntza Unitatea ez da autonomia-erkidegoko Administrazioaren egitura organikoaren barruko administrazio-organo edo -unitate iraunkorra izango, eta ez du eragingo lanpostuen zerrendetan kide gehiago sartzea.

4. Hondamendien aurreko Laguntza Unitateko kideek egiten dituzten jarduerak borondatezkoak eta doakoak izango dira. Hala ere, euskal administrazio-erakundeetako edo konbentzionalki hari lotutako administrazioetako giza baliabideak hartzen badira jarduera horietarako, langile horiek haien ohiko lanpostuari dagozkion ordainsariak jasotzen jarraituko dute (atxikita dauden administrazio-unitatearen kontura), prestakuntza jasotzen eta praktiketan dauden bitartean eta larrialdi-eginkizunetan aritzen diren aldietan.

5. Erregelamenduak ezarriko du atalaren jarduera- eta funtzionamendu-araubidea".

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da martxoaren 8ko 34/1983 Dekretua, Ekintzak Koordinatzeko Zentroak sortzeari buruzkoa (1983ko martxoaren 29ko EHAA, 37 zk.).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- TESTU BATEGINA PRESTATZEKO GAIKUNTZA.

Baimena ematen zaio Jaurlearitzari lege hau indarrean jarri eta gehienez hamabi hilabeteko epean Larrialdiak Kudeatzeko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen testu bategina egiteko. Testu bateginak testu bakarrean bilduko ditu bi legeak, zenbaki berria emango die hala behar duten artikulua, kapitulu eta xedapenei, zenbakera berrira egokituko ditu testu bakarrean bildu beharreko legeen barnebidalketak, eta araupetu, argitu eta harmonizatu egingo ditu batu beharreko testuak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- INDARREAN JARTZEA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.